

# Giza Eskubideen, Konponbidearen eta Bakearen aldeko MANIFESTUA

Nik, .....-k, herri honetako herritarrek merezi duten bake justu eta iraunkorra izateko ¡Ordua heldu dela! uste dut. Pausoak emateko unea da, guztion artean, errespetuz eta aniztasunetik, behin betiko konponbidea eman dezagun. Hamarkadetako sufrimenduari amaiera jarriko diogu, preso, iheslari eta deportatu guztien etxeratzea lortuz. Bake justu eta iraunkor baten unea da.

Gaur, ETaren su eten iraunkorraren ostean, konponbidearen aldeko ekimenak hamaika izan dira, herritarrek eta sektore ezberdinek parte hartuz aldarrikapen hauetan. Baina presoen, iheslarien eta deportatuen eskubideak egunero urratuak izaten jarraitzen dute. Egoera honi konponbidea emateak denbora premia eskatzen du: ezin dugu itxoin, lehenbailehen eman behar da.

Hori dela eta, giza eskubideekin konpromiso serioa eta zintzoa hartuta, dispertsio politikari amaiera eman behar zaio, askatasun eza daukatenei ere tratu humanoa eman behar zaie. Euskal presoek pairatzen duten espetxe politikak estatu espainiolaren eta frantsezaren barne legediak urratzeaz gain, araudi internazionalaren orientabideak ere ez ditu betetzen.

Tratamendu gizatiar eta legala ematen bada, gaixo dauden pertsonak espetxea atzean utzi beharko dute, zigorra oinarri duen salbuespenezko legediari amaiera emanez. Min asko daramate euskal herritarrek euren gainean; hainbeste sufrimendu bertan behera utzi beharra dago, lehenbailehen.

Premiazkoa da, ere, gatazkaren konponbidea guztiz ematea, amaiera emanez gatazkari, ondorioak itxiz.

Presoak, iheslariak eta deportatuak gaur egun oraindik egoterakoan, euren eskubideak egunero izaten ari dira urratuak. Modu honetan, gatazkan eta minean oinarrituta dagoen garaia ixtea ezinezkoa egiten da; are gehiago, bizikidetasunean oinarrituta dagoen agertoki berria behar duten herri honetako gizon eta emakumeek honen premia dute.

Azkenengo hamarkadetan bizitako gatazka baten ondoren konponbidea emateak preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eskatzen du; hala ikusi izan dugu antzeko gatazkak izan dituzten beste herrialde batzuetan. Epe hauek ahalik eta lasterren eman beharko lirateke, eraginak jasaten ari diren pertsona guztien duintasuna errespetatuz. Horregatik, borondate politikoa gaur egungo egoerara moldatu daitekeen legedi batekin uztartzea ezinbestekoa da; izan ere, aspaldiko prozedurek ez dute tokirik gaur egungo agertokian.

Soilik horrela egingo dugu bidea bizikidetzatza lortzeko, esan bezala, herri honetako pertsona gehienek eskatzen duten bezala. Gainera, bizikidetzaren agertoki honetan sufrimenduak eta sentsibilitate ezberdinen egiek euren tokia izango dute, gertatutakoa berriz ere ez errepikatzea lortzeko.

Giza eskubideekin dudan konpromisotik abiatuta, une hori ahalik eta lasterren iristeko lan egingo dut.

Sinadura

.....-(e)n, 2016ko .....-ren ..... (e)an



**SARE**

Zaldiaran plaza 8, behea  
01012 GASTEIZ (Araba)  
t. 94.561.293  
w. [www.sare.eus](http://www.sare.eus)

